



KOBRAKETA KANPAINARI EGIN DIO HITZAK

Egunean 0,20 zentimoretatik, harpidedunek egunkaria etxean jaso eta zozketetan parte hartuko dute 7

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Osteguna
2009-03-19

VIIURTEA 1.657.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Bi eskalataile Usabalgo rokodromo berria probatzen, atzo. E. EZEIZA

ROKODROMO BERRIA ERABILTZEKO PREST

TOLOSA Atzo inauguratu zuten Usabal kiroldegian rokodromo eta boulder berria; Edurne Pasabanen omenezko oroitarria ere jarri dute 4

Auditorioa egingo dute Madrilgo diru laguntzekin

ANOETA Ezker abertzalea eta EAJ ez dira ados jarri proiektua aukeratzeko orduan 6

Antolatzaileak gustura Ahoz aho jaialdiarekin

TOLOSA Haurren emanaldiak eta auzoetakoak izan dira arrakastatsuenak antolatzaileen arabera 2

**Nikaraguaren
aldeko
Merkatu Txikiak
aurreikusitako
helburua bete du**

TOLOSA 5.800 euro bildu dituzte, eta proiektuarekin aurrera egin ahaliko dute 5

**Tolosaldeko
Triatloi Taldeak
indartsu ekin dio
denboraldi
berriari**

TRIATLOIA Larunbatean, Oñatin, hiru probatan top 10aren barruan sartu ziren 3



hitza

HITZAK harpidedunentzat
4 sarrera pare ditu

BertsoJazza

Martxoak 28 • Larunbata
22:00etan • Tolosako Leidorren

sarrerak eskuratzeko deitu: 943-65 56 95 harpidedun kodea eskura duzula



sarrerak

HITZAK harpidedunentzat
sarrera pare du

BRUESA GBC Kalise Gran Canaria

Igandea • Martxoak 22
12:30ean • Donostiako Illunben



Antolatzaileak «oso gustura» daude Ahoz aho jaialdiak eman duenarekin

Kultura » Haurren emanaldiak arrakastatsuak izan dira, eta auzoetakoetan jende gehiago izan da.

INIGO TERRADILLOS

Hilaren 9tik 15era bitarte hitz-jokoak, poesia, ipuin kontaketa, kondairak... izan dira, hau da, ahozkotanarekin erlazioa duten ekintzez gozatzeko aukera izan dugu. Ahoz aho nazioarteko jaialdien baitan antolaturiko ekintzak izan dira, eta behin egitaraua amaituta, antolatzaileak «oso gustura» azaldu dira aurtengo jaialdiak eman duenarekin.

Asvinenea Arte Eszenikoen Sustapen eta Laborategiak antolatuta izan da bigarren urtez eskualdean ekimen berezi hau. Izan ere, Ahozkotanaren nazioarteko jaialdia duela 19 urte sustatu zuen La Caratulak, eta Asvinenearekin duten harremana medio, eskualdera ekartzea posible izan zen iaz, eta baita aurten ere, pixkanaka egonkortzen ari delarik gurean.

May Gorostiaga Asvineneako kideak adierazi duenez, «balantze oso positiboa egiten dugu, izan ere, nahiz eta ikus-entzuleen kopurua ez den oso handia izan guztia oso ondo aterata da». Gorostiagak azaldukoaren arabera, ikusle gehiago espero zituzten emanaldietan, batez ere Leidor aretoan, baina, al-diz, auzoetan izan duen harrera



Gazttxoen saioek izan dute bereziki arrakasta Ahoz aho jaialdian. E. EZEIZA

oso ona izan da; «alde horretatik aztertzen ari gara, agian datorren urtean Leidorren egin ordez, Kultur Etxean egitea».

Kopurua hain handia ez izatearen inguruan aztertzen ari dira, eta hainbat arrazoi egon daitezkeela dio Gorostiagak: «batetik, nik uste dut aldi berean ekintza gehiegi izan direla; bestetik, Inauteriak oraindik ere gertu egotea arrazoietako bat izan daiteke jendeak atzera egiteko, eta datorren urtean

agian egunez aldatzea irtenbideetako bat litzateke». Ikusleei dagokionez, gazttxoen artean arrakasta handiagoa izan duela gehitu du Asvineneako kideak. Hala, antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete jaialdia egitea posible egin dutenguztiek.

Bi euskaldun jaialdian

Datorren urteko jaialdiari begira, bi narratzaile euskaldun izango dira, eta hori oso berri ona dela dio;

«Espainian zehar narrazioak egiten ariko dira, eta hori guretzat oso garrantzitsua da».

Aurtengo jaialdiak jarri duen beste puntu positiboa elkarteen artean izan duen elkarlana da. «Auzoekin bildu gara, Zine Forumearekin, Ereite eta Tolosaldea Sahararekin elkarrekin... Asvinenearentzat oso garrantzitsua izan da elkarteen artean izan dugun lankidetzeta, eta aurrera begira mantentzeagustatuko litzauguke».

Eskualdeko igerilariek denbora onak egin dituzte Euskal Herrikoan

Igeriketa » Espainiako gutxienekoa egin du Ekaitz Privadok; Muñagorri, Onsalok eta Ibarbiak marka hobetu zuten.

ERREDUKZIOA

Euskal Herriko absolutu, junior eta etorkizun mailako Txapelketa jokatu zen pasa den asteburuan, hau da, larunbatean eta igandean Usabal kiroldegian. Bertan, dena 32 taldek hartu zuten parte, eta noski, tartean zen Tolosaldea Igeriketa Kirol Taldea (IKT). Emaizta onak lortu zituzten eskualdeko igerilariek, askok euren denborak hobetzea ere lortu zutelarik.

Txapelketan 2 marka berri ezarri ziren, hain zuzen ere, Bardulia taldeko Jon Andreuk eta Easo taldeko Iyune Gorbeak Euskal Herri-



Euskal Herriko Igeriketa Txapelketa izan zen asteburuan Usabalen. R. CALVO

ko denborak hobetzea lortu baitzuten.

Eskualdeko kirolariei dagokionez, aipatzekoa da, Ekaitz Privadok Espainiako gutxienekoa egin zuela bular-igeriketan, 50 metroko proban, eta ondorioz, Espainiako Txapelketarako sailkatu da. Es-

painiako gutxienekotik gertu ibili zen Leire Muñagorri 200 bizkarrezko proban, 15 ehunenekora geratu zen, hain zuzen. Baina, dena den, bere denbora hobetzea lortu zuen, 4 segundo jeitsiz.

Denbora hobetu ahal izan zuten, Ainhoa Onsalok eta Irati Ibar-

biak; Onsalok 800 metroan, eta Ibarbiak, 200 metro libreko proban. Eñaut Vazquezek ere maila ona erakutsi zuen, baina gutxiagatik ezin izan zuen bere marka hobetu.

Hurrengo txapelketak

Tolosaldeko igerilariak ondo aritu ziren Euskal Herrikoan, baina Espainiako Txapelketa dute buruan, eta hura ari dira buru-belarri prestatzen, eta taldeko arduradunek aipatu bezala, «han espero dugu marka hobereak egitea».

Iñaki Karrera, Josu Karrera, Eneka Muñagorri, Pablo Uzquidun, Jokin Otaegi, Marta Alonso, Ane Manso, Maria Manso, Olaia Cuadrado, Jon Azpiazu eta Amaia Pagola izango dira Espainiakoan ariko direnak. Valladoliden dute lehenengo hitzordua asteburu honetan, infantil mailako txapelketan. Hurrengo asteburuan, Castellonen ariko dira, eta apirilaren 1, 2 eta 3an Malagan absolutu mailakoan hartuko dute parte. Azkenik, apirilaren erdialdera klubon arteko Espainiako Kopan ariko dira, eta honekin amaituko da neguko denboraldia.

Zinema eskaintza zabala Leidorren gaurtik astelehenera

ERREDUKZIOA

Asteburu luze honetan zine eskaintza zabalaz gozatzeko aukera izango da Leidor aretoan, gaurtik astelehenera bitarte, gazte nahiz helduentzako bost film izango direlarik ikusgai.

■ **Martxoak 19, gaur.** 17:00etan, Barriola, San Adriango azeria (haur zinema, euskaraz); 19:30ean, *El curioso caso de Benjamin Button*; 22:30ean, *La dudu*.

■ **Martxoak 20, bihar.** 19:30ean eta 22:30ean *Cuscut* (Zine Foruma, jatorrizko bertsoia).

■ **Martxoak 21, etzi.** 17:00etan, *City of Ember*, *En busca de la luz* (haur zinema); 19:30ean eta 22:30ean, *El curioso caso de Benjamin Button*.

■ **Martxoak 22, igandea.** 17:00etan, *City of Ember*, *En busca de la luz*; 19:30etan eta 22:00etan *La dudu*.

■ **Martxoak 23, astelehena.** 20:30ean, *El curioso caso de Benjamin Button* (ikuslearen eguna).

Telefonoak Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarbalea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Iruia. Osasun zentroa: 943 690720

Leizta. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdia)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosaldea bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leizta): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egotza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474

Indartsu ekin dio denboraldiari Tolosaldeko Triatloi Taldeak

Triatloia » Hiru probatan top 10aren barruan sartzea lortu zuten larunbatean Oñatin; egun, zazpigarren talderik indartsuena da.

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko Triatloi Taldeak, Oñatin eman zion ofizialki joan den larunbatean Euskadiko Zirkuituari hasiera. Maila ona erakutsi zuten, izan ere, hiru probatan top 10aren barruan sartzea lortu zuten. Hala ere, Zirkuitua Oñatin hasi bazen ere, aurretik beste lau probatan ere parte hartu du taldeak, eta horietan puntuatzea lortu du, nahiz eta ordezkaritza txikia izan.

Denboraldia oso indartsu hasi du taldeak, hiru probatan bere ordezkariak top 10aren barruan sartzea lortu baitute, eta horrek momentuz euskadiko 7. talderik indartsuena izateko ahalbidetzen die. «Dudarikgabe honek guztiak gure helburu nagusia den Triatloi Zirkuiturako sasoi puntu egokienean jartzeko balio izango digu», azaldu dute taldeak.

Bestalde, aurtengo denboraldiari dagokionez, berrikuntza bat na-



Tolosaldea Triatloi Taldeko Ibon bizikleta gainean. HITZA

barmentzen dute, hau da, Mahala baserriko produktuen enpresaren laguntza izango dutela. Bada, ordea, Triatloi Taldeak azpimarratu

duten beste datu bat, izan ere, «taldekideen kopurua gorantz doa, eta egun taldea osatzen dugun kirolariak 30 gara».

EAEko Auzitegi Nagusiko presidente izateko Biurrunen hautagaitza baztertu dute

Politika » Ruiz Piñeiro, Tapia eta Cinto dira geratzen diren hautagaiak; Hilaren 26ko batzarrean hautatuko dute.

ERREDAKZIOA

Espainiako Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak (CGPJ) Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko presidente

kargurako hautagaien artean baztertu egin ditu Juan Luis Ibarra, Garbiñe Biurrun tolosarra (Demokraziarako Epailak taldeko kidea) eta Juan Mateo Aiala, eta, beraz, Fernando Ruiz Piñeiro, Jaime Tapia eta Maria Victoria Cinto dira geratzen diren hautagaiak.

CGPJk hilaren 26ko batzarrean hautatuko du hiruhorietako bat. 13 aldeko bozka jaso beharko ditu aukeratuak; Espainiako Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia 9 au-

rrerako, 9 kontserbadore, CiU alderdiko bat eta EAJko beste batek osatzen dute, Carlos Divar lehendakariak gain.

Azken agintaldian Ruiz Piñeiro izan da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko lehendakaria. Tapia eta Cinto Demokraziarako Epailak taldeko kideak dira. Cinto Gipuzkoako Auzitegi-koburua ere bada eta Tapia, berriz, hiruren artean epaile euskaldun bakarra da.

IX. Araxesko Mendi Itzulia antolatu dute apirilaren 5erako

ERREDAKZIOA

Amarozko Auzo Elkarteak IX. Araxesko Mendi Itzulia antolatu du apirilaren 5erako. Bi urtetik behin antolatzen du elkarteak ekitaldi hau, eta 9-11 orduko proba izaten da.

Elkartetik azaldu dutenez, Araxesko Mendi Itzulian parte hartu nahi dutenek dagoeneko aukera dute. Gainera, horretarako ez da ezer ordaindu beharko. Nahikoa izango da izen-deiturak eta herria azaltzarekin, 656 00 89 57 (Jose

Mari) telefono zenbakira deituta, edota azuetxe@hotmail.es helbidera idatzita.

Lehenago izena emateko aukeraz gain, egunean bertan ere egin ahalko da, 06:00etatik aurrera, Amarotzen bertan.

Laburrak

Tolosa Kup 09 antolatzen hasteko bilera egingo dute

TOLOSA » Tolosa Kup 09 areto futbol txapelketa martxan jartzen hasiko direla azaldu dute Udaleko Gazteria sailetik. Horretarako, ordea, bilera bat egin nahi dute parte-hartzaileekin, taldeen izen-ematea, egutegia eta arautegia bezalako puntuak guztien artean zehazten joateko, datorren asteazkenean egingo dute, hilaren 25ean, 18:00etan, Kultur Etxean, eta bertara deitu dituzte parte hartu nahi dutenak.

Korrikaren aurkezpena egingo dute hilaren 24an

TOLOSA » Apirilaren 2an pasako da Korrika 16 Tolosaldeko. Hori dela eta, Korrika batzordekoak zenbait ekitaldi antolatzen ari dira datozen egunetarako. Horren guztiaren berri emateko, bilera egingo dute datorren asteartean, hilaren 24an, batzordekoek. Ekitaldia Lizardi elkartean izango da, 17:30ean. Aurkezpen irekia da, honenbestez, herritar guztiak gonbidatzen dituzte antolatzaileek, bertan parte hartzea.

TXOTX

Rezola Tel.: 943 556 637 Astigarraga
Ipintza baserria - Santio Zaharra

Oialume Zar Tel.: 943 552 938 Astigarraga
Mikel Arozamena bidea, 16 (autobus geltokitik gertu)

Akelenea Tel.: 943 333 333 Astigarraga
Oialume bidea 57 www.sidreriaakelenea.com

Gurutzeta Tel.: 943 552 242 Astigarraga
Oialume bidea 63 (sarrerara Ergobiatik) www.gurutzeta.com

Lizeaga Tel.: 943 468 290 Astigarraga
Gartziategi baserria, Martutene pasealekua, 139

Elutxeta Tel.: 943 556 981 Urnieta
Oztaran auzoa, 34 - Elutxeta baserria

Larre Gain Tel.: 943 555 846 - 616 287 867 Hernani
Larre-Gain baserria, Ereñozu auzoa

Otsua-enea Tel.: 943 556 894 Hernani
Osiñaga auzoa

Urdaira Tel.: 943 372 691 Aginaga-Usurbil
Urdaira baserria

Otatza Tel.: 943 801 757 Zerain
Otatza baserria

Urbitarte Tel.: 943 180 119 Ataun
Ergoiena auzoa

Ohiarte Tel.: 943 501 013 Zerain
Ohiarte baserria

Isastegi Tel.: 943 652 964 Tolosa
Aldaba Txiki auzoa www.isastegisagardotegia.com

Begiristain Tel.: 943 652 837 Ikaztegieta
Iturrioz baserria

Zabala Tel.: 943 690 774 Aduna
Garagartza baserria www.rzabala.com

Aburuza Tel.: 943 692 452 Aduna
Goiburu auzoa, Olatza etxea

Sarasola Tel.: 943 690 283 Asteasu
Bebailara auzoa

Zalbide Tel.: 943 652 176 Abaltzisketa
Zalbide baserria

Eguzkitza Tel.: 660 654 317 Tolosa
Usabal auzoa, 25

Erreka Tel.: 948 510 625 Leitza
Erreka auzoa

DIEZ Autobusak

Autobusak eta autobusaren zerbitzuak
Ezkerreko autobusak
Ezkerreko autobusak, ezkerreko autobusak...
Mundako kalea, 24 / Tel.: 943 28 84 16 / Fax: 943 27 11 27 / 20013 DONOSTIA
www.diezautobusak.com

Usabali ginga jarri diote, gaurtik zabalik den rokodromoarekin

Kirolak » Atzo inauguratu zuten kiroldegiaren barrualdean kokatutako eskalatzeko gune berria; hamazazpi metroko altuera du honek.

ERREDAKZIOA

«Usabal kiroldegiari ginga jarri diote», atzo inauguratu baitzuten rokodromo eta boulder berria. Hamazazpi metroko altuera du, eta «Europako onenetakoa da». Proiektu honen aurrekontua 280.000 eurokoa izan da.

Trekiera ekitaldi berezia izan zen atzokoa. Berdintasun eta kirol batzordeak bat egin baitzuten ekimenarekin. Hasteko, Edurne Pasabanek, bere omenez, kiroldegiaren sarreran jarri duten plaka agertu zuen. Ondoren, rokodromoa inauguratu zuten, izan behar zuen moduan. Hau da, eskalatu.

Duela hiru urte inguru sortu zen rokodromo hau eraikitzekeo egitasmoa, baina diru arazo batzuk medio, orain arte ezin izan da gauzatu. Jokin Bildarratzek Usabal kiroldegiaren eta Tolosaren arteko konparaketa egin zuen atzo, esanaz, «bietan ere gauzak pixkanaka» egiten ari direla, jende askoren esfortzuari esker. Inaugurazio ekitaldian, aipamen berezia egin zuten, han bertan zeuden Andoni Imaz, kirol zinegotzi ohia, Edurne Pasabani, Kirolzer-i eta Alpino Uzturre nahiz Oargi mendi elkarteak.

«Azken hauek izan baitziren behin eta berriz rokodromo eskalatu aritu direnak».

Berdintasun saila ordezkatzuz, Onintza Lasak hitz egin zuen atzo, eta adierazi emakumeari garrantzi handia eman nahi izan diotela egitasmo honetan ere. Izan ere, luzatutako datuen arabera, Usabal kiroldegiko bazkideen erdia baino gehiago emakumeak dira. Honekin lotuta adierazi zuen, «praktikatzen den kirol motaren artean desberdintasunak daude, emakume eta gizonen artean, baina zifra hauek adierazten dute kirolzaleak garelak». Hori dela eta, neskei dei egin zuten, rokodromoa erabiltzeko, eta Usabalgo zati hori ere nolabait, beraien ere egiteko, ez gizonenak bakarrik.

Edurne Pasaban, kirolari onena

Usabal kiroldegiaren sarreran urtez urte, kirolari onenaren saria irabazten duen tolosarraren izena daraman plaka bat jartzen da. Lehendabizikoa 2004ean ipini zen, eta Xabi Fernandezena izan zen. Hurrengo urtean, Armando Roca (2005), Gero, Kepa Caballero (2006), eta iaz, Xabi Alonso

(2008). Hala, tartekoa falta zen, Edurne Pasabanena hain zuzen ere. Tolosako kirolariek, egindako lanaren adierazle, 2007ko kirolari onena bezala aukeratu zuten. Bere hitzetan, «plaka hauek ikusita, nabaritzen da kirolaren munduan Tolosan harrobia dagoela».

Rokodromoa erabiltzeko zenbait baldintza

Rokodromoaren alboan kartel bat ipini dute, non hau erabiltzeko bete behar diren baldintzak agertzen diren. Esaterik, 16 urtetik beherakoak, heldu batek lagunduta bakarrik ibili ahal izango dira. Adin horretatik gorakoek, beren gain hartuko dute erabilerak eragindako erantzukizun guztia, eta behar adinako ezagutza badutela egiaztatu beharko dute harreraren federatu txartela erakutsita.

Boulderrean soka erabiltzea ezinbestekoa izango da. Bestalde, instalazioa erabiltzeko, material eta arropa egokia behar da nahitaez (katu hankak, soka dinamikoak, eskaladako arnesa, grigia edo aseguragailua, zinta expreskak eta kirol arropa) CEUUIA arauak homologatutako materiala. Honez gain, debekatua dago atxikiak edo presak lasatzea edo ibilbideak aldatzea zuzendaritzaren baimenik gabe. Baldintza hauez gain, beste hainbat ere bete behar dira, erabiltzaileen segurtasuna ziurtatzeko.



Atzo arratsaldean inauguratu zuten kiroldegi barruan dagoen rokodromoa. E. EZEIZA

berriarekin

Munduko
ZINEMA
euskaraz

Best film:
Bridget Jones's Diary
Eskaladako promesak
Gizakien seme-aitabak
Ez dabilen plaka
Lorezin leiala

Maitasun istorioak,
zientzia fikzioa,
akzioak,
kulturrekin zinema

Otsailaren 28tik aurrera,
larunbatera, zure kioskoan BERRIarekin

+ 4,90€

Harpidedunentzat: bileruma 0504 19.40€
Eskanua egokituz: 942-20 42 45

berria



Ekitaldiari hasiera emateko, bere omenez jarri duten plaka agertu zuen Edurne Pasaban mendigoizaleak. E. EZEIZA



Merkatu txikian ateratakoarekin, Santa Ageda abesbatzak emandakoarekin eta Auzokideen diru laguntzarekin 5.800 euro lortu dituzte, guztia Nikaraguara bidaltzeko. INIGO TERRADILLOS

Merkatu Txikiko emaitzekin Nikaraguako proiektua aurrera eraman ahalko dute

Tolosa » 5.800 euro lortu dituzte guztira, ia nahi zuten guztia; «Lana suposatu badu ere, pozik gaude emaitzarekin».

NEREA URBIZU

Joan den aste osoan zehar Amaro Auzoetxe elkarteak antolatutako Merkatu Txikia izan zen Tolosako Kultur Etxean: helburua Nikaraguako Nekazaritza eta Abelazkuntzako goi mailako prestakuntza teknikoan 16 emakume eta produktoreri laguntzea zen. Guztira 5.800 euro inguru lortu dute, Nikaraguara bidaltzeko.

Aste honek «lana suposatzen digu», onartzen dute azoka prestakuntza aritu direnek, Merkatu Txikiko atekari itxi eta sobratu den materiala biltegira sartzeko orduan pentsatzen jarrita. «Orduan ikusi genuen, oso justu bada ere (300 euro falta da 6.100 eurora iristeko) jasotako diruarekin, gehi Amarozko Santa Agedako abesbatzak emandakoa, gehi Auzokoen Elkarteak emandako %0,7, «posible izango da beste amets txiki bat errealitate bihurtzea».

Horretaz gain, Nikaraguako 16 emakume ekoizle unibertsitaterra joan ahal izango dira, ikasketa bultzatze egiteko eta emakume bezala hazten jarraitzeko. «Aldi berean, pertsona bezala eta talde bezala dituzten beharrei aurre egiteko bide bat irekiko zaie».

Hiru helburu beteta

Hiru izan dira Elkartasun Azoka Txiki honekin lortu dituzten helburuak: alde batetik 16 emakume horiek ikastera joateko aukera

izango dute eta nekazaritza eta abeltzaintzako goi mailako teknikoan ikasketak egingo dituzte.

Bigarren helburu gisa, Tolosaldean bizi diren etorkinak diren familia askorekin dago lotuta. «Askok arazo ekonomiko larriak dituzte eta modu batean, zeuzkaten behar batzuei aurre egin diete, zapatak, haurrentzako jostailuzko kotxeak, arropa eta abar erosiz. Guztiak euro gutxi batzuen truke eta beste kasu askotan ez eren truke, ez zutelako».

Azkenik, asko ez zuten pertsona horiek, bi edo bost euro utzi dituzten Merkatu Txikian eta txanpon horiek diruzuzenean Nikaraguara joango direnak, behar handiak dituzten beste pertsona batzuei laguntzako jaso dute diru guztia. «Gutxi daukanak gutxiago duenari eman dio: elkartasun handia egon da».

Proiektuaren nondik norakoak

Nekazaritza eta Abelazkuntzako goi mailako prestakuntza teknikoak, 16 emakume eta ekoizleri laguntzeko jaso dute diru guztia. Emakume horiek Xochilt Acalt zentroan daude antolatuta, Nikaraguako Leon Sailean, Larreynaga-Malpasillo udalerriko 8 komunitaterekin eta Telica udalerriko 3 komunitaterekin batera.

Proiektuaren zenbatekoa guztira 6.100 euro zen eta 5.800 eurora iritsi dira Tolosan. Proiektu honen bidez, euren ikasketekin jarraitzeko aukera eman nahi zaie 16 emakume antolatuari, Nekazaritza eta Abelazkuntzako Goi Mailako Teknika prestakuntzaren prozesuan. Horrela, ikasketa maila handitzeko aukera izango dute, eta beren jabeakuntza integratu sendotzeko. Jakina da, era horretan

bide gehiago irekiko zaizkiela lan munduan eta gizarte mailan.

Nekazaritza eta Abelazkuntzako Goi Mailako prestakuntza Nikaraguako Unibertsitate Autonomoak sustatzen du, oinarriko tresna batzuk eskaintzeko emakumei nekazaritzaren eta abeltzaintzaren arloetan, modu zientifiko eta praktikoa, eta ingurumena zaintzeko eta babesteko eraman.

Kontuan hartu behar da, gainera, emakume horiek oso motibatu daudela hasitako ikasketekin jarraitzeko eta formatzeko, eta ekoizle bezala lidergoa, eraberean, elkartasun jarrera erakusten dutela, implikatuta eta integratuta

Inguruan bizi diren etorkin askok merkatuari esker behar batzuei aurre egin dute diru gutxirekin

Xochilt Acalt zentroak bultzatzen dituen programa desberdinetan.

Bestalde, beren familiak eta komunitateak, zeharka bada ere, horren onuradunak dira. Auzoetxek emandako laguntzarekin batera, Nikaraguako Unibertsitate Autonomoak subentzionatu egingo ditu 16 emakume ekoizle horiek, ikasketen hilerokoarekin, eta emakume horiek larunbatetan hartuko dituzte klaseak, urte osoan.

Tolosaldeko emango zaien laguntza emakume horien garraioa ordaintzeko, janaria eskuratzeko, ikasketa materiala, azterketa oftalmologikoa egiteko eta bost emakumei betaurrekoak erosteko izango da. Zuzenean diru laguntza eman nahi izanez gero, kontu bat dago irekita Kutxan: 2101 0081 15 0124410788.

Elordi haur parkea moldatzeko obrak

Altzo » Maiatzaren 15erako bukatzea espero dute; moldaketa hauetarako 56.422 euro beharko dira.

N. URBIZU

Altzoko eliza atzealdeko parkea berritzeko lanak aurki hasiko dira, izan ere, maiatzaren 15erako bukatuta egongo direla aurreikusi dute. Bi proiektu nagusi dira Elordi haur parke publikoaren inguruan. Alde batetik, parkera joateko edo sartzeko hobekuntzak egingo dituzte, gaur egun eskatzen diren segurtasun neurriak errespetatuz.

Bestetik, hobekuntza edo mol-

daketak egingo dituzte parketan bertan. Beti ere, segurtasun aldetik, legeak eskatzen duen moduan. «Bestela ere bertako jolasak eta nahiko zahartuta zeuden». Parke berria izango dutela esan daiteke, beraz. Guztira parkearen inguruan egin beharrekoek 56.422 euroko kostua dute.

Euri urak bideratuta

Altzoko frontoi alderako bidearen ertzean ur plubialen enkauzamentua egin dute dagoeneko, hau da; euri urak bideratzeko lanak. Hori da Altzoko Udalak dirulaguntzei esker egin ahal izango dituen hiru proiektuak. Azken honen, 10.656 euro balio du eta esan bezala, eginda dago.

Laburrak

Intxurre Irunera joango da etzi, hiru puntuen bila

ALEGIA » Etzi Alegiako Intxurreko futbol jokalariek Irunera joango dira jokatzera. 19:30ean hasiko da norgehiagoka, kasu honetan Irun CF 1902ren kontra. Saikapen nagusian 7. postuan daude, alegiarrengandik puntu bat azpitik. Maiatzaren 23an bukatuko dira iguera faseko partidak eta Intxurrek 9 partida ditu aurretik jokatzeko: horietako bat atzeratutakoa da.

Aurrera-Saiaren Berriko finalerdia gaur Beotibarren

PILOTA » Gaur goizean 10:30ean hasita Tolosako Beotibar pilotakuan, VI. Berria Txapelketako pilotako finalerdia jokatuko dituzte. Kasu honetan, etxeko Aurrera-Saiak eta Zugarralde izango dira aurrez aurre. Kadeteen mailan Labaka-Arratibel Iribre-Mayansen kontra ariko dira. Ondoren, jubentzetan Apezetxea-Zinkunegi Jaunarena-Taintaren kontra eta bukatzeko nagusien mailan Renobales-E. Galarraga eta Santesteban-Azanza izango dira.

EPAn izena emateko epea, astelehenetik aurrera

TOLOSA » Bigarren Hezkuntzako graduatu titulora lortzeko proba libreak aurki izango dira Tolosan. Horretarako izena eman behar da eta datorren astelehenetik hasita apirilaren 24era arte dago horretarako aukera. Tolosako EPAn eman beharko da izena, eta azterketa maiatzaren 20an izango da, EPAn bertan. Hauek dira bete beharreko baldintzak azterketan parte hartzeko: Euskadiko Autonomia Erkidegoan bizitzea, 18 urte beteta izatea eta DBHn matrikulatuta ez egotea.

Ohiko bilkura gaur zortzi egingo dute

AMEZKETA » Hilaren 26an, gaur zortzi, hain zuzen, 20:30ean Amezketako udaletxeko batzar aretoa ohiko bilkura egingo dute. Bertan, besteak beste, jorratuko duten gairik garrantzitsuenari buruzko ur sarea eta zoladura berriaren obraren esleipena izango da. Bestela ere, batzordeetan hitz egin dutena ere ezagutzera eman goko dute bileran.

Gaur Gazte Festei hasiera emateko, palako finalak

BERASTEGI » Gaur 18:00etan hasita, Berastegiko gazte festei hasiera emateko palako finalak jokatuko dituzte, bertako frontoian. Gauean, berriz, 22:30a inguruan Gazte-txean Mendeku Itsua eta Gaueko itzalak taldeen kontzertuak izango dira. Bihar 17:30ean futbol partidak izango dira, nesken artekoa lehenik eta gero mutilen artekoa. 21:00etan, berriz, herri afaria antolatuko dute Kakonen. Gazte festak larunbatean bukatuko dira, dantzaldiarekin.

@ Zurea da hitza. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAKO webgunean irakurleek bidaltako albiste, iradokizun, esker, nahiz kezak irakurri ahal izango dituzu. Bestela ere, webgunearen bitartez, HITZAKO erredakziora albiste hori bidali dezakezu eta kazetariaren bat gaia jorratze arduratuko da. Horregatik, komenigarria da irakurle-ideazle horrek telefono zenbakiren bat edota helbide elektronikoren bat jartzea, kazetariak xehetasunak behar dituzenean esateko. Sar zaituz Tolosaldeko nahiz Leitzaledeko berriak emateko garaian ere!

www.tolosaldeko-hitza.info

Auditorioa egingo dute Ikastolaren ondoan Madrilgo diru laguntzarekin

Anoeta » Ezker abertzaleak eta EAJk ez dute bat egin diru laguntzekin egin behar den proiektua erabakitzean.

IMANOL GARCIA

Espainiako Gobernuak udalei emandako diru laguntza non erabiliko den erabaki du Anoetako Udalak eta proiektua onartu diote Madrildik. Auditorio berria egingo dute Ikastolaren ondoan, 110 lagun ingururentzako lekua izango duena. Obrak apirilaren bukaeran hasi eta urriaren bukatzea espero dute.

Biztanle kopuruarengatik Anoetari 316.000 euroko diru laguntza egokitu zaio. Ezaugarri jakin batzuk bete behar ditu proiektuak diru laguntza hori jasotzeko, Periko Peñagarikanok alkateak gogoratzaren duenez: «Alde batetik 2009ko aurrekontuetan aurreikuspenik ez izatea, bestetik urte honetan bukatu behar direla obrak eta, azkenik, lana sustatzeko balio behar du».


Baldintza horiek ikusita hartutako erabakia izan dela dio Peñagarikanok. «Hasi eta bukatu beharreko obrabatizan behar zela ikusten genuen». Herrian gauza ezberdinak aztertzen hasi ziren: «Hainbat baserrietara ura eramatea, plazaren inguruan aparkaleku bat egitea eta beste gauza batzuk ere bai. Baina pentsatutako obra horiek emandako diru laguntzetatik pasatu egiten ziren edo ez zegoen denborarik proiektua egiteko».

Alkateak gaineratzen duenez, Anoetak «gabezia handi bat» baduela ikusi zuten: «Edozein emanaldietarako erabiltzen da pleno aretoa eta txiki-egi gelditzen da. Horretaz aparte, 12 eta 16 urte bitartekoentzat emanaldi bat edo film bat jarri nahi baduzu, ez dago lekurik». Aurrera begira, Kultur Etxe baten proiektua Lasarbe auzoaren garapenakin etorriko dela azaldu du Peñagarikanok.

Auditorioak Ikastolaren handitze aurreproiektuarekin zerikusia izango du. 2012rako Ikastola txiki



Ikastolaren ondoan kokatuko da auditorioa. I. GARCIA



Planoan ikusten da non egongo den auditorioa, kiroldegia eta Ikastola erreferentzia bezala hartuz. HITZA

geldituko dela aurreikusen da eta dagoeneko egina dago lehenbiziko zabalkunde ikerketa bat. «Lan horretan ikusi zen Ikastolak hazi behar badu, beste eranskin bat ere gehitu zitekeela, hau da, auditorioa», dio alkateak. «Osagarri bezala ikusten genuen eta beharrezkoa zela». Beraz, aurreproiektu horretan ere auditorioa aurreikusita zegoen eta Udalak horri heldu dio. Proiektua egin zuten galdetu zireten horrelako proiektu bat diru la-

guntzen kopuru horretan sartzea bazuen eta eta baiezkotzea eman zien.

Kontrako iritzia

Ezker abertzalearen eta EAJren artean ez da adostasunik izan diru laguntzarekin zer proiektu egin behar den erabakitzerakoan. Peñagarikanok azaltzen duenez, «izugarritzko sorpresa hartu genuen EAJko proiektuaren aurka agertu zirenean». Aurka egitean, alkatearen ustez, «Anoetan zerbait egitearen aurka daude eta enplegua sustatzearen aurka daude».

Alkateak gaineratu duenez, «esatea beste obra batzuk egitea zegoela, azterketa eta kalkuluak egin gabe, lotsagarri xamara iruditzen zitzaigula esan genien. Gauza bat da oposizioa egitea, beste gauza bat da udaltxearen kontra egotea». Peñagarikanok kritikoa azaldu du EAJren jarrerarekin: «Izan baltitz aztertu gabe dagoen zerbait edo beharrik ez dagoen zerbait, baina beharra badago, orain ematen zaigu aukera hori egiteko eta

horrelako proiektu baten aurka azaltzea, herriko gauza guztien aurka azaltzea dela iruditzen zait». Eta gaineratu du: «Nahiz eta bere talde politikoak aurkeztutakoa ez izan, herriarentzat baliagarria bada, dekoroz bada ere, abstenitu egin behar ziren».

EAJren aldetik ez dute ikusten «lehenasuna zuenik» auditorioa egitea. «Anoetak behar konkretu batzuk ditu eta kasu honetan proiektu berri bati heltzen zaio. Zergatik proiektu berri bat?», galdetzen du Fidel Azpiroz zinegotzi jeltzaleak. Proiektu horrekin «personal eta mantenu gastuetan kapitulu neurri baten garrantzitasua» ekarriko duela gaineratzen du Azpirozek. Bestalde, diru laguntzen kopuru ia guztia eraikinak bakarrik hartuko duela diote. «Eraikinarekin bakarrik agortzen bada diru laguntza, nondik eta nola ekipatuko da gero eraikina?», dio Azpirozek.

EAJk azaltzen duenez, «ikusten genuen inbertsio interesgarria egiteko aukera eta aukera hori galdu egiten da». Beste proiektu batzuk «egokiago» ikusten zituztela dio Azpirozek: «Herriko hainbat baserrietara ura eramatea, musika eskolak bere egoitza eskatzen du, Lerratulo errota ere hor dago, eguneko zentroa adinekoentzat, herri inguruan aparkalekuekin dagoen arazoa...». Auditorioan «kultur ekitaldi oso murriztak eman ahal izango direnez, eta proiektuan azaltzen da era horretara», gaineratzen du Azpirozek, «ikusten dugu oso elementu mugatua Anoetaren beharrei erantzuteko».

Udalak «duen egoera ekonomikoa zulo handiagotzen sartzeko proiektua ikusten dugu» gaineratu dute jeltzaleak. Proiektu berriak egitea denbora falta baino gehiago «borondate falta» dela diote. Bestalde, aparkalekua egiteko diru nahiko ez bada, aipatutako beste proiektuak egiteko dirua bazegoela diote.

Pilota jaialdi profesional batekin inauguratuko dute frontoia

Irura » Hilaren 27an izango da eta partida nagusian Titin III eta Laskurain, Gonzalez eta Barriolaren aurka ariko dira.

ERREDAKZIOA

Irurako frontoia iren inaugurazio ekitaldiei hasiera emango diete hilaren 27an jaialdi profesional batekin. Sarrerak gaur bertan jarri dituzte salgai 20 eurotan. Bi partida izango dira jaialdian. Partida nagusian, Binakako Txapelketan aritu diren bi bikote ariko dira: Titin III.ak eta Laskurainek Gonzalez eta Barriolaren aurka jokatu dute. Horren aurretik Cabrerizo II.a eta Galartza VI.a, Galartza V.a eta Merino I.aren aurka jokatu dute.

Jaialdia 22:00etan hasiko da. Sarrerak hainbat lekutan jarri dituzte salgai: Zaharren Biltokian, Trinke Tabernan, Amets Estankon, Opil kafetegian eta Aizpurua jate-txean. Udaletik azaldu dutenez, gurasoren batek bere seme edo alabarekin partidara joan nahi badu, sarrera udaletxean zigilatuta beharko du.

Apirilaren 22ra arte, udal tasak ordaintzeko diru laguntzak eskatzeko epea

Villabona » Ur horniduraren tasa eta zabor bilketa eta ezabaketa zerbitzuaren tasa ordaintzen laguntzeko dira.

ERREDAKZIOA

Villabonako Udalak jakinarazi du 2009ko udal tasak ordaintzeko diru laguntza eskaerak aurkezteko epea apirilaren 22an amaitzen dela. Ur horniduraren tasa eta zabor bilketa eta ezabaketa zerbitzuaren tasa ordaintzeko dira diru laguntzak.

Eskaerak aurkezteko baldintza batzuk bete behar dira: hileroko diru-sarrerak, kontzeptu guztiak barne, Oinarritzko Errentaren (728 euro/hileko) berdinak edo urriagoak dituzten eta ohiko etxebizitzaz gain bestelako ondasun higiezin jabeak ez diren familia unitate guztiak eskatu ahal izango dituzte.

Interesatuak udaletxean aurkeztu beharko dute eskaera. Informazio gehiago Villabonako Gizarte Zerbitzuetan jaso daiteke, 943 69 39 25 zenbakian.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Aurten inoiz baino gehiago beharrezkoa da irakurleen fideltasuna; HITZA etxean jasotzeko 56 euro ordaindu behar dira. HITZA

harpidedun bakoitzarengandik jasotzen ditugun 20 zentimo horien garrantzia azpimarratzekoa da; zentimo horiek azken aldian gure eskualdean sortu den euskarazko herri-proiektu inportantecinari arnasa eta babesa emateko modurik egokiena baitira.

Arrazoi ezberdinak medio, oraindik ere gure egunkaria etxean doan hartzen duten irakurle (ez

«Zalantzazko testuinguru ekonomiko honetan harpidadunen fideltasuna beharrezkoa da»

«HITZA oraindik ordaintzen ez dutenei gurean izena eman dezatela eskatzen diegu»

ordaintzaile) horientzat, aparteko mezua merezia ere helarazi nahi dute. HITZA argitaratzea, beste edozein produktu bezala, dirua kostatzen da (gure kasuan asko gainera).

Beste edozein egunkari egunero etxean hartzea ordaindu egiten den bezelaxe, HITZA ere ordaindu egin behar da. Horregatik «oraindik etxean doan hartzen duen horri, gurean izena emateko eskutiko genieke eta egunean 20 zentimoren truke HITZA gustura bidaliko diegu gainera», azaldu dute enpresako arduradunek.

Ordaintzeko prestez badago berriz, 902 820201 zenbakira dei dezake eta gehiago ez bidaltzeko eskatu. «Horrela, ordaintzaile direnei, zerbitzu hobea eman diezaiogun ahalbidetuko dutelako».

» HAINBAT DATU

■ **Kuota.** 56 euro (0,20 zentimo eguneko HITZA etxean jasotzeagatik).

■ **Sariak.** - Kontu korrontea ematen dutenen artean edo dagoeneko eman dutenen artean Tolosako Orue erretegin bazkari edo afaria.

- Portaleko giltza maten dutenen artean edo dagoeneko eman dutenen artean Mahala baserriko produktu sorta

■ **Zozketa.** Apirilaren 3an, ostirala, egingo da. Apirilaren 4ko alean aterako dira irabazleen izenak.

2009ko kobraketa kanpainari ekin diote Tolosa Herria Hedabideek

Komunikabideak »

0,20 zentimorengatik, harpidedunak HITZA etxean jaso eta zozketetan parte hartuko du.

ERREDAKZIOA

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkaria argitaratzen duen Tolosa Herria Hedabideak enpresak urteko kobraketa kanpaina hasi du, nola ez, bere harpidedunei abantailak eskainiz. Hala, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariaren 2009 urte osoko harpidetza kuota 56 eurokoa izango da (BEZA barne). Kontuan izanda auten 271 egunetan argitaratuko dela HITZA egunkaria, egunero 20 zentimoko prezioa izango du.

Gainera, HITZagatik ordaintzen

dutenek abantailak izango dituzte: etxean jasoko dute eskualdeko egunkaria, zozketetan parte hartuko dute eta deskontu batzuk izango dituzte. Harpidedun txartela ere jasoko dute, aipatu zozketetarako eta deskontuetarako.

Sariak kontu korrontea eta giltza ematen dutenen artean

Aipatu kuota hau HITZAK modu egokiago batean kobratu ahal izateko, enpresako arduradunek «egokiena eta efizienteena harpidedun bakoitzaren kontu korronte zenbakia edukitzea eta bertatik errezibo pasatzea» izaten dela jakinarazi dute.

Harpidedunen aldetik horrek suposatzen duen esfortzua kontuan hartuta, aurtengo kanpainen kontu korronte zenbakia eman diguten edo orain ematen diguten bezeroei, Tolosako Orue errete-

gian bi pertsonentzako bazkari edo afari baten zozketan sartzeko aukera emango diegu.

Era berean, «egunkaria txukunago banatu ahal izateko» euren atariko giltza eman diguten edo orain ematen diguten harpidedunen artean, berriz, Mahala baserriko produktuez osaturiko saski berezi baten zozketan egingo da.

Zozketa, datorren apirilaren 3an

Orue erretegi eta Mahala baserriko bi sari hauen zozketak, datorren apirilaren 3an, ostiralarekin, egingo dira eta irabazleen izenak egunkarian apirilaren 4an bera argitaratuko dira, larunbatarekin. Zozketetan parte hartu nahi duenak, kontu korronte zenbakia edotagiltza, martxoaren 28a baino lehen eman beharko dute.

Aurtengoan, inoiz baino gehiago

Tolosa Herria Hedabideak enpresak aurtengorako erronka batzuk zehaztu ditu: Batetik, zalantzazko testuinguru ekonomiko zein politikoa honetan, harpidedunei aurten inoiz baino gehiago «hutsik ez egiteko» eskatu nahi die. «Harpidedunen fideltasuna ezinbestekoa da».

Lehen aipatu bezala, egunean 20 zentimoren truke, eskualdeko informaziorik osatuena euskeraz egunero etxean jasotzeaz gain, HITZAKo harpidedun ordaintzaile izateak dituen aparteko abantailak aprobetxatzeko aukerak ematen jarraituko du, inoiz baino zozketa gehiago egingo ditugulako eta oro har harpidedunak saritzeko ekimen berriak landuko direlako.

Honetaz guztiaz gain, egunero

Hilberriak eta urteurrenak

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak urteurrenak eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

JUAN GARMENDIA ZUNZUNEGI
Attona

-Goian bego-
Gau luzeak,
gau hestuek,
gau tristeak
egunaren aitzindari.
Zeruian izar bat ageri
eta zure bilobak
begira-begira berari:
muxu haundi bat igorri.



ABALTZISKETAN
2009ko
Martxoaren 19an

Zure bilobak: Julen eta Belen; Dayna; Xuban, Eneritz eta Gorka; Gaizka, Uxue eta Ugaitz; Heiko, Ihalara eta Amaia.



15°
3°

GOIZA EGUZKIA
ARRATS. EGUZKIA
BEROENA 15°
HOTZENA 3°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetaledea: 687 410 022. anoetaledea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarraledea: 687 410 032. ibarraledea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialde: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hemialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Albiztur.** Hilaren 28an Adunako Aburuza sagardotegira irteera autobusez, ondoren Hernanira joateko aukerarekin. Afaria eta autobusa, 33 euro. Izen-ematea, udaletxean.

■ **Anoeta.** Alkartasuna biltokiak Baztanera bidaiara antolatuta du apirilaren 16rako: kobazuloak, likore-fabrika, gaztandegia eta txokolategia bisitatu, ondoren bazkaria. Bazkariak eta autobusak, 28 euro (30 euro ez denarentzat). Izen-ematea, biltokian.

Kirolak

■ **Tolosa.** Berria Pilota Txapelketako finalerdiak Beotibarren 10:30ean hasita. Aurrez aurre, Aurrrera-Saiaz eta Zugarralde. Irabazleek hilaren 27ko asteburuan finala jokatuko du.

Jaiak

■ **Berastegi.** Gazte Festen baitan, palako finalak 18:00etan eta 22:30ean Mendeku itsua eta Gaeko Itzalak taldeen kontzertua Gaztetxean.

Zinema

■ **Tolosa.** Leidor aretoan *Barriola*,

San Adriango azeria haurrentzako filma emango dute euskaraz 17:00etan. *La duda* filma 22:30ean, (igandean 19:30ean eta 22:00etan). *El curioso caso de Benjamin Button* filma emango dute: gaur 19:30ean, (etzi 19:30ean eta 22:30ean eta astelehenean, Ikuslearen eguna, 20:30ean).

Musika

■ **Tolosa.** Vendetta eta Stupenda Jones musika taldeen emanaldia Bonberenean 22:30ean.

Erakusketak

■ **Tolosa.** *Sida/Thesa 8 artista 8 hausnarketa* erakusketa Aranburu Jauregian.

■ **Tolosa.** *Oteiza, bizirako proiektua* erakusketa Aranburu Jauregian.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 64 943 673274.

■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.

■ **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.



Natura esnatzen hasi da

NATURA • Udaberriari sartuko gara bihar, zehazki 12:44ean. Mendi inguruetara joan eta natura esnatzen, loratzen ari dela ikustea erraza da duela dagoneko egun batzuk, gurean behintzat. Lore eta landare bitxi gehiago ikusten da eta animaliak ere esnatu dira

negu hotz eta luze honen ondoren. Hirietan eta herrietan jende gehiago ikusten da, egunak luzeagoak dira eta beste bizipoz bat sentitzen du gizakiak. Zer esanik ez, aste honetan laguntzen digun eguraldi atseginarekin. NEREA URBIZU

A Agurrak



Zorionak!

Jose Luis Tome (Tolosa). Zure familiarren partetik!

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak

Mesedez,
ekarri
argazkia
bi egun
lehenago.

Magos de Oz

KONTZERTUAN

APIRIK 4
24:00

→ **25€** AURRETIK → **28€** TAKILAN

SALMENTA PUTUAK: TICK-TACK-TICKET
IRUÑEKO TABERNAK: ONKI MIN / BLACK ROSE
TOLOSA: ZUNBELTZ
LEKUNBERRI: ILARGI ETA AKER

sala
muxu

Antolatzailea: **ylaluna**
Laguntzailea: **DN**
DIARIO DE NAVARRA

www.salamuxu.com Lekunberri